

**Gipuzkoa 2003  
Aparteko Plana**

**Plan Extraordinario  
Gipuzkoa 2003**

**2001eko irailaren 30era arte  
Hasta el 30 de septiembre de 2001**

## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

Sarrera.....	3
ONDORIOAK .....	6
1. Taula: Gipuzkoa 2003 Aparteko Plana (01/09/30).....	8
Eranskina: 01/09/30era arte Planaren Exekuzioa .....	10
Introducción.....	15
CONCLUSIONES.....	18
Cuadro 1: Plan Extraordinario Gipuzkoa 2003 (a 30/09/01).....	20
Anexo: Ejecución del Plan hasta 30/09/01 .....	22
ALEGACIONES .....	27

Vitoria-Gasteiz, 2002ko otsailaren 14an  
Vitoria-Gasteiz, a 14 de febrero de 2002

## **SARRERA**

### **LANAREN ZABALA**

Gipuzkoa 2003 Aparteko Planari buruzko txosten hau (aurrerantzean, Plana) Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 5/88 Legeari jarraiki mamitu dugu eta Gipuzkoako Biltzar Nagusiek hala eskatuta, 2001eko apirila-2002ko martxorako Urteko Lan Programan barne hartua dago.

Lanaren mamia hasierako plangintza eta Planaren egitasmo ezberdinek 01/09/30ean izan duten exekuzioa aztertzea izan da, foru sailek emandako kontularitzako informazioa eta datu osagarriak abiaburu hartuta. Azken datu hauei dagokienez, Epaitegiak egindako lana eskuragarri dagoen kontularitzako informazioarekin bat datorrela egiaztatzeraz mugatu da.

Zenbaitetan, Plana saileko plan zehatzagoekin uztartzen da (Errepideen Plan Orokor eta Lurraldekoa, Iruzuraren aurka borroka egiteko Foru Plana, gizarte zerbitzuen Bizitzen Lagundu programa, e.a.); hauek guztiak, Gipuzkoa 2003 Aparteko Planean jasotako alderdiez haratago, ez dira fiskalizaziogai izan.

### **PLANAREN DESKRIBAPENA**

Gipuzkoa 2003 Aparteko Plana Biltzar Nagusiek 2000ko urterako Lurralde Historikoaren Aurrekontuan jasotako agiri modura oniritzi zuten eta 2000-03 laurtekoan egin beharreko ekintzen urteanitzeko konpromisoa zehazten du (bi jarduera salbu, hauek 2004ra arte luzatzen baitira), guztira 82.775 milioi pezetako zenbatekoarekin.

Planaren jatorria foru erakundeek eskuratu asmo dituzten finantza baliabide handiagoei norako egokia emateko borondatean dago; baliabide hauek foru zorra ordaindu eta ekonomia egoera aldekoaren eskutik datoz, gastu arrunta areagotzen eta ohiko jardunbideetan baliabideak xahutzea ekidinez.

Honela, bada, Planak Gipuzkoako Lurralde Historikoarentzat estrategiko iritzitako ekintzak zehazten ditu, 3 jarduera ardatzetan bereziak: gizarte kohesioa; Lurralde Historikoaren modernizazioa; eta kultur ondarea eta ingurumena zaintzea.

GIPUZKOA 2003 APARTEKO PLANA		Milioi pta.			
Saila	Jarduera	Gizarte kohesioa	Moderni- zazioa	Kultura eta ingurunea	Guztira
Dip. Orokorra	Pasaialdearen zaharberritzea .....	3.270	-	-	3.270
	Ezagutza sozietatearen garapena .....	-	3.150	-	3.150
	Informazio sozietatearen garapena.....	-	45	-	45
Lehendakaritza	Informazio sozietatearen garapena.....	-	1.000	-	1.000
Ekon. eta Turismoa	I+G lerro berriak .....	-	640	-	640
	Informazio sozietatearen garapena.....	-	50	-	50
Garr. eta Errepideak	Errepideak: Eibar – Gasteiz eta bestelakoak	-	54.730	-	54.730
	Garraioak.....	-	75	-	75
Ogas. eta Finantzak	Iruzur fiskalaren aurkako borroka .....	1.347	-	-	1.347
OOHH eta Hirigintza	Industri lurra .....	-	2.460	-	2.460
	Lehortearen aurkako plana .....	-	1.000	-	1.000
	Ibaiak bideratzea .....	-	400	-	400
Kultura, Eusk. Gaz., Kir.	Kultur ondarea.....	-	-	1.255	1.255
Nekazar. eta Ingurunea	Baso hobekuntzak .....	-	-	800	800
Gizarte Zerbitzuak	Gutxieneko sozialen asistentzia laguntzak...	955	-	-	955
	Egoitzetxe eta zentroyen mantenimendua ....	6.785	-	-	6.785
	Egoitzetxe eta zentroetan inbertsioak.....	4.813	-	-	4.813
<b>Guztira</b>		<b>17.170</b>	<b>63.550</b>	<b>2.055</b>	<b>82.775</b>

OHARRA: Planak besarkatzen dituen proiektuak xehetasun handiagoz ezagutzeko, kontsultatu 1. Taula eta Eranskina.

Aurreko taulatik honako alderdi hauek bereizi ditugu:

- Hainbat proiektuk GFaren ohiko aurrekontu ekintzak indartzen dituzte zenbatekoari eta onuradun kopuruari dagokionez (laguntza asistentzialak, baso hobekuntzak, e.a.). Batzuk lehenagoko egitasmoak guztiz edo hein batean exekutatzeko konpromisoaren ondorio dira. Beste batzuk, azkenik, informazio eta ezagutzaren sozietatea garatzeko egitasmo berriei dagozkie, teknologia berriak erabiltzea indartuz.
- Ekintzak departamentu bakarrekoak dira, Informazioaren Sozietatearen Garapena salbu, hiru foru departamentutan aurrekontuataratzen baita.
- Aurreikusitako gastua inbertsioetarako erabitzen da eta neurri txikiagoan, gastu orokorretarako: laguntza asistentzialak, iruzur fiskalaren aurka borroka egiteko langileen kontratazioa, eta abar.
- Aurreikusitako exekuzioa 2004. urtera arte luzatzen duten 2 ekintza bakarrak Eibar-Gasteiz autobidea (8.500 milioi pta.) eta Deskargako tunela (1.500 milioi pta.) dira.

## PLANAREN ALDAKETAK

Plana baliabide malgu bat da, exekuzio behar eta aukera egiazkoetara egokitzen dena. Honela, bada, 01/09/30ean 82.775 milioi pezetakoa zen hasierako Planak, iada 85.716 milioi pezeta egin ditu. Hona hemen zeintzu izan diren aldaketa garrantzitsuenak:

- Kultur Ondarea: Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, aurrez San Telmo Museoaren birmoldaketa modura aurkeztutako ekintza (100 milioitik 1.000 milioira aldatzen dena).
- Gutxieneko sozialari emandako laguntza asistentzialak (787 milioi pezeta gehiago 2001eko urtealdirako, izan ere, 2000ko urtealdirako soilik izendatu baitziren laguntzak).
- Pasaialdearen eraberritzea: Molinao desjabetu (682 milioi pezeta gehigarri; hauetatik, 330 milioi pezeta inguru berreskuratuko dira Eusko Jaurlaritzatik).
- Garraioak: Donostiako Autobus Geltokia (250 milioi pta. osagarri Udalarari dirulaguntza emateko, 50 milioi pta.tik 300 milioi pezetara).

## FINANTZAKETA

Planak ez du aparteko finantzaketarik behar, izan ere, hasierako helburua norako zuzena ematea baita GFak zorra murriztetik eta aldeko ekonomia egoera orokorretik eskuratzea espero dituen baliabide handiagoei.

Hala eta guztiz ere, Planaren hainbat jarduera gerora Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadi 2000Hiru Ekimenean jaso dira. Txosten hau idatzi dugun datan eskueran dugun informazioaren arabera, Eibar-Gasteiz, Ormaiztegi-Zumarraga eta Bergarako hegoekialdeko saihebidia eraikitzeke 11.552 milioi pezetako laguntza autonomikoak emango dira.

Gainera, aurrez adierazi bezala, Eusko Jaurlaritzak Molinao-Pasaia desjabetzak eragingo duen guztizko kostuaren heren bat bere gain hartzeko konpromisoa hartu du, gutxi gora behera 330 milioi pezeta.

## ONDORIOAK

**1. Alderdi Orokorrak:** Plana interes handiko herraminta da; hona zer eragiten duen:

- a) Lurralde Historikoaren garapenerako beharrezkoak diren inbertsioen urteanitzeko plangintza eta bestelako ekintza adierazgarriak.
- b) Hiritarren aurrean lan egiteko konpromiso irmoa, egingo diren ekintzei buruzko informazio zehatza baitaukate.

**2. Planaren exekuzioa:** orokorrean, Planaren exekuzioa atzeratuta dago, izan ere, 01/09/30ean 2000 eta 2001eko urteetarako aurrekontu egindako gastuen O fasean batez besteko exekuzio maila %20koa baita. Hitzartutako gastuek, berriz, edo D fasean, %38ko ehunekoa egiten dute eta kalkulo honetan urteko diru-izendapenak eta urteanitzekoak barne hartzen dira (kopuru honi dagokionez, esan behar da maiz dagoen konpromisoa beste entitate batekin gastuaren geroko exekuziorako hitzarmen bat izenpetzera mugatzen dela).

01/09/30ean proiektu ezberdinen banakako egoera Txosten honetako Eranskinean deskribatu da. Esan behar da, maiz, suertatzen diren atzeraldiak normaltzat jo daitezkeela, egitasmo batzuk uste baino zailtasun handiagoak izan baititzakete definitzeko orduan.

Honako ekintza hauek zehazteko zain daude 01/09/30ean eta foru erakundeek aparteko adeitasunez hartu behar lituzkete:

- Pasaialdearen zuzpertzte industrialak: guztira 1.083 milioi pezetako proiektua; hauetatik 283 milioi pezeta Planari dagozkio eta 800 milioi pezeta 98-99 urteetako aurrekontuen txertaketetatik eratorri dira.
- Untzitegiak: jarduera hau Bortalabordan egiteko aurreikusitako ekintza.
- Donostiako Autobus Geltokia: Udalak ez du oraindik kokalekua zein izango den erabaki.
- Urtegi sarean hobekuntzak: Planaren zuzkidura ez zen behar hainbatekoa aurreikusitako bi jardueri aurre egiteko, eta honenbestez, une honetan ez dago Urkulu-Eibar lotura gauzatzeko diru-zuzkidurarik (800 milioi pezetan balioetsitako kostua).
- Donostiako Gastronomia Eskola.
- Pasaiaiko Untzigintza Museoa.
- Gutxieneko Sozialeko Laguntza Asistentzialak: 2000ko urtealdira mugatutako jarduera honen plangintza ez da bere helburuekiko koherentea izan eta 2001ean beharrezkoa izan da helburu honekin diru-izendapen berriak egitea; seguru aski, gainera, ekintza hau hurrengo urteetan ere errepikatu egin beharko da harik eta pentsioen kopuruetan egitura aldaketak gertatzen diren arte.

**3. Planaren Egokitzapena:** nahiz Planak ez duen aldaketa formalik izan indarrean egon den 21 hilabeteetan zehar, izan ditu, ordea, berebaitako hainbat aldaketa, hasiera bateko aurreikuspenak urtero gauzatzen diren aurrekontu kredituen aldaketen ondorioz.

Nolanahi ere, eta aurreko lerroaldeetako oharpenak ikusita, HKEEk foru erakundeei gomendatzen die 2001eko urtealdiaren itxieran Planaren edukia arauz berraztertzeke, hartara, atzeratua gera ez dadin. Egokiera honek aurreikusitako jarduerak eta denboran egindako plangintza berraztertzeke bide eman behar du, edota, ekintza berriak barne hartzeke; baita, baliabide erabilgarriak egitasmoen egoera egiazko eta aurreikusgarrira egokitzeko bide ere.

**4. Planaren jarraipena:** 2000ko Kontu Orokorrak ez du Planaren exekuzioaz ia batere informaziorik ematen, taula orokor batera eta sailen oroit-idatzietan sakabanako iruzkinetara mugatzen dena. Honen ildotik, ekimen zuzena dela uste dugu Ogasun eta Finantzen sailak adierazi digun asmoa, zera, aurrerantzean aurkeztuko dituen kontu orokorretan berariazko eranskin bat gehitzekoa. Informazio hau, gainera, Planaren egitasmoak gauzatzeko eskuratutako finantzaketarekin osatu behar litzateke.

## 1 Taula. GIPIZKOA 2003 APARTEKO PLANA (01/09/30ean)

Milioi pta.

	Plana			Aurrek			_Exek. (*)_		
	Urteak	Hasi.	Aldak.	Guztira	00/1	Gerokoak	Guzt.	%D	%O
<b>DIPUTATU NAGUSIA</b>									
<b>Pasaialdearen garapena</b>									
1. Molinaoren desjabetza.....	00	161	682	843	663	180	843	%11	%14
2. Lanbarren Parke Logistikoa, SA.....	00/3	1.500	-	1.500	525	150	675	%81	%0
3. Pasaiazen hiri birmoldaketa .....	00/3	286	-	286	186	-	186	%100	%1
4. Industr. zuzper:enpr. eta poligonoei laguntz. .	00/1	283	-	283	200	83	283	%0	%0
5. Untziteria berritzeko laguntzak.....	00/3	300	-	300	133	100	233	%100	%0
6. Untzitegiak indarberritzeko plana .....	00/3	740	-	740	115	-	115	%0	%0
<b>Ezagutzaren sozietatea</b>									
7. Ibaetako Campusa: I+Gko eraikin berriak .....	00/2	1.400	-	1.400	1.000	400	1.400	%100	%0
8. Garaia proiektua: Arrasateko Uniberts.....	00/2	1.350	-	1.350	600	750	1.350	%74	%62
9. Telekomun. Injiner.: CEIT eta Nafarroako Un.	00/1	400	-	400	400	-	400	%100	%25
<b>Informazioaren sozietatea</b>									
10. Sentiberatzeko kanpaina .....	00	45	39	84	83	-	83	%100	%51
		6.465	721	7.186	3.905	1.663	5.568	%71	%16
<b>LEHENDAKARITZA</b>									
<b>Informazioaren sozietatea</b>									
11. Alderdi orokorrak:azterlanak, publiz. etab... .	01/2	200	-	200	10	-	10	%80	%80
12. Foru sailetan aplik. informatikoak .....	00/3	750	-	750	421	-	421	%29	%11
13. Euskara teknologia berrietan .....	00	50	19	69	69	-	69	%54	%41
		1.000	19	1.019	500	-	500	%33	%17
<b>EKONOMIA ETA TURISMOA</b>									
<b>I+Gko lerro berriak</b>									
14. Mikrosistema eta mikromakinak .....	00/3	640	19	659	420	240	660	%82	%41
<b>Informazioaren sozietatea</b>									
15. Proiektu berritzaileak-BIC Berrilan.....	00	50	50	100	100	-	100	%50	%50
		690	69	759	520	240	760	%78	%43
<b>GARRAIOAK ETA ERREPIDEAK</b>									
<b>Errepideak</b>									
16. Eibar - Gasteiz.....	00/4	30.000	-	30.000	9.563	19.900	29.463	%36	%1
17. Pasaiaiko saihebidia .....	00/3	3.658	-	3.658	1.300	2.358	3.658	%0	%0
18. Martutene - Hernani .....	00/3	7.350	-	7.350	1.809	5.291	7.100	%0	%0
19. Bergarako hegoekialdeko saihebidia .....	00/2	2.900	-	2.900	2.025	764	2.789	%99	%46
20. Ormaiztegi - Zumarraga.....	00/2	4.400	131	4.531	2.931	1.600	4.531	%3	%4
21. Sasiola - Mutriku.....	02/3	1.427	-	1.427	-	-	-	-	-
22. Errotaburuko biribilgunea .....	00/2	1.070	-	1.070	542	705	1.247	%0	%0
23. Astigarragako saihebidia .....	00/2	925	-	925	885	225	1.110	%82	%52
24. Deskargako tunela.....	03/4	3.000	-	3.000	-	-	-	-	-
<b>Garraioak</b>									
25. Donostian autobus geltokia .....	00	50	250	300	100	200	300	%0	%0
26. Irun - Pasaian geltoki intermodala .....	00	25	-	25	25	-	25	%28	%28
		54.805	381	55.186	19.180	31.043	50.223	%29	%9



## 1 Taula. GIPIZKOA 2003 APARTEKO PLANA (01/09/30ean)

Milioi pta.

	Urteak	Plana			Aurrek			_Exek. (*)_	
		Hasi.	Aldak.	Guztira	00/1	Gerokoak	Guzt.	%D	%O
<b>OGASUNA ETA FINANTZAK</b>									
<b>Iruzur fiskalaren aurkako borroka</b>									
27. Iruzur fiskalaren aurkako borroka .....	00/3	1.347	-	1.347	512	302	814	%94	%35
		1.347	-	1.347	512	302	814	%94	%35
<b>OO.HH. ETA HIRIGINTZA</b>									
<b>Industri lurra</b>									
28. Industri lurra erostea .....	00/3	2.460	-	2.460	710	250	960	%34	%25
<b>Lehortearen aurkako Plana</b>									
29. Urtegien sarean hobekuntzak .....	00/3	1.000	-	1.000	400	600	1.000	%0	%0
<b>Ibaien ubideratzea</b>									
30. Ibaiak ubideratzeko lanak .....	00/3	400	-	400	209	-	209	%97	%51
		3.860	-	3.860	1.319	850	2.169	%24	%21
<b>KULTURA, EUSKARA, GAZTERIA ETA KIROLAK</b>									
<b>Kultur Ondarea</b>									
31. Art-Media Pabiloia - Arteleku.....	00	55	64	119	119	-	119	%100	%23
32. Santa Teresa Komentua.....	00/2	600	-	600	400	200	600	%95	%0
33. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa	00	100	900	1.000	400	600	1.000	%0	%0
34. Balenciaga - Getaria Museoa .....	00/2	175	-	175	50	-	50	%50	%50
35. Donostiako Gastronomia Eskola .....	00/2	275	-	275	50	-	50	%0	%0
36. Pasaiaiko Untzi Museoa .....	00	50	-	50	50	-	50	%0	%0
		1.255	964	2.219	1.069	800	1.869	%38	%5
<b>NEKAZARITZA ETA INGURUMENA</b>									
<b>Baso hobekuntzak</b>									
37. Baso berritzea .....	00/3	800	-	800	399	-	399	%77	%60
		800	-	800	399	-	399	%77	%60
<b>GIZARTE ZERBITZUAK</b>									
<b>Laguntza asistentzialak</b>									
38. Gutxieneko sozialeko laguntzak .....	00	955	787	1.742	1.742	-	1.742	%75	%75
<b>Egoitzetxe eta zentroyen mantenimendua</b>									
39. Mantenimendu eta egonaldi gastuak.....	00/3	6.785	-	6.785	1.505	-	1.505	%88	%88
<b>Egoitzetxe eta zentroetan inbertsioak</b>									
40. Eraikuntza eta hobekuntza lanak.....	00/3	4.813	-	4.813	2.116	200	2.316	%58	%35
		12.553	787	13.340	5.363	200	5.563	%72	%63
<b>Guztira</b>		<b>82.775</b>	<b>2.941</b>	<b>85.716</b>	<b>32.767</b>	<b>35.098</b>	<b>67.865</b>	<b>%38</b>	<b>%20</b>

(\*) D % D aldiko gastuak (arrunta eta gerokoak) / aurrekontu izendapenak (arrunta eta gerokoak)

O % O aldiko gastuak (arrunta) / aurrekontu izendapenak (arrunta)

(Ohartu aurreko bi ratioak ezberdinak direla, eta O%, D% baino handiagoa izan daitekeela).

## ERANSKINA

### 01/09/30 ARTE PLANAREN EXEKUZIOA

#### Diputatu Nagusia

**1. Molinao-Pasaiaren desjabetza:** iada abian dagoen ekintza honek hondamendian dagoen industrialde bat eraldatuko du gune berdeak egiteko. Aurreikusitako kostua 682 milioi pezeta garestitu izanaren arrazoia da GFAk aurrekontuataratu duela bai Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen eragiketaren atala (kostuaren heren bat, 330 milioi pta. inguru), baita estatuko administrazioak finantza lezakeen atala ere.

**2. Lanbarren Parke Logistikoa, SA:** honako hauek dira sozietatearen kide: Sprilur, SA (%51), GFA (%24,5) eta Oiartzungo Udala (%24,5), udalerrri honetan garraio eta arrantzarako zentro logistiko bat eraikitzeke. Gaurdaino lursailak erosi dira eta hirigintza proiektua oniritzi da. Eraiki beharreko lursailak iada hirugarrenekin hitzartuak daude eta eraikuntza lanei 2002. urtean ekitea aurreikusi da. GFAk eragiketa hau finantzatzeko beretu duen konpromisoa 550 milioi pezetakoa da.

**3. Pasaiako Udalaren hiri birmoldaketa:** Udalak hirigunea birgaitzeko udalerrian egindako hainbat ekintzari emandako dirulaguntza barne hartzen du.

**4. Pasaialdean hiri birmoldaketa:** Planean aurrekontu egindako 283 milioi pezetaz gain, badira norako bera duten beste 800 milioi pezeta, zegokionean exekutatu ez zirenak eta 1998 eta 1999ko aurrekontuetatik behin eta berriz txertatzen direnak. Planak proiektu hau 2000/01 urtealdietan egiteratzea aurreikusi zuen, baina txosten hau idatzi dugun datan horren definizioa zehazteke dago.

**5. Untziteria berritzea:** Eusko Jaurlaritzari transferentziak sektorean untziteriaren zaharberitzea eta berrikuntza teknologikoak elkarfinantzatzeko.

**6. Untziteriak indarberitzea:** Planaren lerro hau Bordalabordan unziak konpondu eta eraikitzeke jarduera antolatzeko aurreikusi zen eta gaur egun, oraindik zehazteke dago.

**7. Ibaetako Campusa handiagotzea:** EHUrekin izenpetutako hitzarmen baten bitartez, GFAk 1.400 milioi pezetako ekarpena egiteko konpromisoa hartu du I+Gren eraikin bat eta agiritegi-liburutegi izango den unibertsitate zentro bat eraikitzeke, bestelako lan txikiagoez gain. 01/09/30ean I+Gko eraikina egiteko aurreproiektua baizik ez dago erredakzio fasean, eta hau 2002ko 2. seihilekorako eraikitzea aurreikusi da.

**8. Garaia Proiektua:** Berrikuntza Ardatza Sustatzeko Sozietatea, Garaia, SA, 2000ko abenduan sortu zuten Mondragon Fundazioa Kooperatiba-MCC (%39,999), SPRI, SA (%29,998), GFA (%29,998) eta Arrasateko Udalaren artean (%0,005); honen helburua enpresen ikerketarako zentroak eta unibertsitate zentroak bilduko dituen zientzia parkea sortzea da. GFAk proiekturako egindako ekarpena hitzartutako 998 milioi pezetakoa da, geroko zabalketarako aurreikusitako 1.350 milioi pezetako gehiengoarekin.

**9. Telekomunikabideen Injinerutza:** 2000ko azaroan GFAk hitzarmen bat izenpetu zuen Gipuzkoako Ikasketa eta Ikerketa Teknikoen Ikastegiarekin-CEIT eta Nafarroako Unibertsitateko Injineruen Eskolarekin, Miramongo Teknologia Parkean eraikin bat partzialki finantzatzeko, telekomunikabide-injinerutza titulazio berria eta CEITi zegokion area bilduko zituena. Dirulaguntza 400 milioi pezetakoa da, 1.200 milioi pta.ko aurrekontu osoaren gainean. Jarduera 2000/01 aldirako aurreikusi bazen ere, gaur arte lursailak baizik ez dira erosi eta eraikuntza proiektua udal oniritzia jaso zain dago.

**10. Informazioaren sozietatea; gizartea sentiberatzeko kanpaina:** gastua Planaren publizitate kanpainei dagokie, teknologia berrien erabilera sustatzeko (internet) bideratutakoak, eta "e-Gipuzkoa" behatokiaren kudeaketa gastuei.

Lehendakaritza

**11. Informazioaren sozietatea, alderdi orokorrak:** orain arte ikasketa, publizitate eta propaganda gastu txikiak barne hartu ditu.

**12. Foru sailetan aplikazio informatikoak:** batez ere, Izfe, SA informatikako foru sozietateak diseinatutako foru departamentuen web orriek osatzen dute: zerbitzuen gida; aurretiko zita eskatzeko sistema; erregistro liburu digitala; net-txartela proiektua, kultur fondoan digitalizazioa; kontratazio espedienteen egitasmoa, eta abar.

Lerro honen exekuzioak urtealdi bateko atzeraldia duela balioetsi da, izan ere, 2001eko aurrekontuaren kontura garatzeko egitasmo informatikoak urte bereko irailean oniritzi baitira.

**13. Euskara informazioaren teknologia berrietan:** kontuetaratutako gastu nagusia euskaltegiei, euskararen autoikaskuntza programarako-Habenet proiektua emandako dirulaguntzek egiten dute (24 milioi pta.).

Ekonomia eta Turismoa

**14. I+Gko lerro berriak:** Ekintzak bi zentro berriren sorreran hezurramitu dira eta hauekin GFAk lankidetzat hitzarmenak izenpetu ditu:

- Mikrosistemak: Mikrosistemen Ikerketa Zentroa-CMIC (CEIT eta Ikerlanen artean sortua): 300 milioi pezeta.
- Mikromakinak:: Mikrofabrikazio eta Doitasun Injinerutzarako Teknologia Zentroa-Cemicro (Tekniker): 240 milioi pta.

**15. Proiektu berritzaileak:** 50 milioi pezetako dirulaguntza eman zaio BIC-Berrilan, Sari enpresa sektorean teknologia berrien erabilera balio-neurtzeko. 2001eko urrian (Txosteneko 1. Taula ondorengoa) beste 50 milioi pezeta eman zaizkio Miramon Enpresa Digitala proiektuari, hasiera batean aurreikusi ez zena.

## Garraioak eta Errepideak

**16. Eibar – Gasteiz autobidea:** Planean izendatutako 30.000 milioi pezetako zuzkidurak ez zituen dirufondo hauekin egingo ziren bidezatiak adierazten. Planari ekin zitzaion unean, 2000ko urtarrila, iada esleitua zegoen Eibar – Ipar Bergara zatia (18.859 milioi pezeta.).

Planaren kargura egindako 10.704 milioi pezetako esleipenak honako hauei dagozkie: Ipar Bergara – Hego Bergara zatiari (9.824 milioi pezeta, gehi 359 milioi obra zuzendaritzari dagozkionak); Eskoriatza – Arlaban zatiaren proiektu-erredakzioari (292 milioi pta.) eta bestelako gastu txikiagoei (229 milioi pezeta).

2001eko urrian (Txostenaren 1. Taula ondoren) Arrasate – Bergara ibilbidearen atal bat esleitu da (4.900 milioi pta.n) eta aipatutako ibilbidearen gainerakoa labur barru 7.884 milioi pezetan lizitatuko da.

**17. Pasaiko saihesbidea:** obra hau 2001eko abenduan lizitatzea aurreikusi da, 6.553 milioi pezetan, Planean uste izandako 3.658 milioiak baino askoz gehiago (honi dagokion aurrekontu aldaketa bideratzen ari dira Txosten hau idatzi dugunean).

**18. Martutene – Hernani autobidea:** Hasiera batean aurkeztutako irtenbideak aurkakotasun itzela eragin zuen eta honenbestez, Biltzar Nagusiek beste proiektu bat egiteko erabakia hartu zuten. Horren erredakzioa 2001eko abuztuan esleitu da.

**19. Bergarako hegoekialdako saihesbidea:** obra hau iada normaltasun osoz ari dira egiten.

**20. Ormaiztegi – Zumarraga autobidea:** obra honen lizitazioa 2001eko azaroan argitaratu da, 7.569 milioi pezetako zenbatekoan, Planean aurreikusitakoa baino askoz altuagoa, 4.400 milioi pezetakoa zena. Dagokion aurrekontu aldaketa Txostenaren 1. Taula egin ondoren bideratu da.

**21. Sasiola – Mutriku bidezatia:** 2002an ekin beharreko jarduera.

**22. Errotaburuko biribilgunea:** jarduera hau 2001eko urrian esleitu da (Txostenaren 1. Taula ondoren).

**23. Astigarragako saihesbidea:** obra hau normaltasun osoz ari dira egiten.

**24. Deskargako tunela:** 2003an ekin beharreko jarduera.

**25. Donostiako autobus geltokia:** jarduera hau zehazteke dago, izan ere, udalak ez baitu oraindik autobus geltokia behin-betiko non kokatuko den erabaki. Diruz lagunduko den zenbatekoa 50etik 300 milioi pezetara areagotu da.

**26. Irun – Pasaian geltoki intermodala:** kontuetaratu den gastua proiektu honen garapenari buruzko azterketa funtzionalari dagokio, Euskomodal, SA sozietatea, Irungo Udala eta Renferen artean.

## Ogasuna eta Finantzak

**27. Iruzur fiskalaren aurkako borroka:** Iruzur Fiskalaren aurka Borroka egiteko Foru Plana Biltzar Nagusiek 1999an oniritzi zuten eta 103 jarduera neurri besarkatzen zituen. Honi erreferentzia eginez, Gipuzkoa 2003 Planak 1.347 milioi pezeta zuzkitu zituen honako ekintza hauetarako:

- Ikuskaritza, Dirubilketa eta Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren zerbitzuetarako langile osagarri finko eta aldi batekoaren kontratazioa (2001eko urtealdiaren azken hiruhilekoan hautaketa probak egiten ari dira aurreikusitako azken 10 lanpostuak zuzkitzeko).
- Neurri hauekin lotutako aplikazio informatikoen garapena.

Izfe, SA foru sozietateak ezarri dituen informatika prozesu eta aplikazioak orain arte 5 proiektutan zehaztu dira, 2000ko aurrekontuaren kargura garatu direnak, hala nola, premiamendu espedienteen jarraipena; zergapekoen eta zerga obligazioen errolden kudeaketa; internet bidez egindako aitortpenak; zerga datuen hautaketa; eta zergapekoen datuen antolakuntza.

Jarduerak nolabaiteko atzeraldia dakarte, izan ere, 2001eko urtealdiko proiektuak urte horretako irailean onartu eta bideratu baitira.

## Obra Hidraulikoak eta Hirigintza

**28. Industri lurra:** jarduera nagusiak Hernani-Orbegozon poligono bat eraikitzeke kostuari dagozkio (208 milioi pta.) eta Lanbarren Parke Logistikoa, SAren kapitalean %24,5eko partaidetza izateari (70 milioi pta.) Azterketa aldian daude lurzorua erosteko bestelako ekintza batzuk, jarduera-gune nagusienak Lezo-Gaintzurizketa, Zestoa-Sansinenea Erreka, eta Azkoitia-Oinartxo izanik.

**29. Lehortearen aurkako borroka:** Planari emandako 1.000 milioi pezetak, aurreikusitako bi jardueretatik bakarrari ekiteko soilik ziren behar hainbatekoak eta honenbestez, Ibai Eder-Barrendiolaren lotura proiektuari bakarrik eutsi zaio; proiektu hau onirizpen fasean dago eta eraikuntza lanei 2002ko bigarren seihilekoan ekitea aurreikusi da. Gaur egun, ez dakite GFak noiz ekingo dion Planean barne hartutako beste proiektu bati, Eibar-Urkulu lotura lanak, alegia (800 milioi pta.n balioetsitakoa).

**30. Ibaien ubideratzea:** ibaiak bideratzeko GFak udal ekarpena finantzatzeko duen ohiko programari zuzkidura handiagoak ematean datza, Eusko Jaurlaritzak exekututzen duena.

## Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirolak

**31. Art-Media Pabiloia Artelekun:** obra hau normaltasunez egiten da.

**32. Santa Teresa Komentuaren zaharberritzea:** obra hau 2001eko ekainean 571 milioi pezetan esleitu da.

**33. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa:** San Telmo Museoa birgaitzeko hasiera batean emandako diru-kopurua Zentro hau sortzeko erabiliko da Eusko Jaurlaritza, Donostiako Udala eta GFAREN artean, partzuergo edo merkataritza sozietatearen moldepean; erakunde bakoitzak 1.000 milioi pezeta emango ditu (honek GFak balioetsi zuen gastua areagotzea eragin du, 100 milioi pezetakoa zena).

**34. Balenciaga-Getaria Museoa:** Eraikin hau Getarian eraikitzeko kostuari partzialki aurre egiteko dirulaguntza izenduna da, 153 milioi pezetan aurreikusitakoa. Aurrekontu egindako gainerako kopuruaren norakoa zehazteke dago.

**35. Donostiako Gastronomía Eskola:** Planean 2002an amaitzeko eta 275 milioi pezetako aurreikuspena du; hala ere, proiektua oraindik zehaztu gabe dago.

**36. Pasaiaiko Untzi Museoa:** Proiektu hau 2001eko irailean zehazteke dauka Pasaiaiko Udalak.

#### Nekazaritza eta Ingurumena

**37. Baso hobekuntzak:** egoera honek ohiko baso lanentzako zuzkidura indartzen du, 300 milioi pezetakoa izatetik, 500 milioi pezetakoa izatera aldatzen dena.

#### Gizarte Zerbitzuak

**38. Gutxieneko sozialari laguntzak:** 18/00 Foru Dekretuak arautzen ditu eta laguntza asistentzial osagarriak ematen ari zaizkie pentsio ez zergazkoen onuradunei, gizarte ongizateko fondoaren onuradunei eta elbarrien pentsio onuradunei. Planaren hasierako diru esleipena 2000. urterako soilik zen, baina 2001ean esleipen gehiago egin dira eta datozen urteetan ere egin asmo dira.

**39. Zentro eta egoitzetxeetan mantenimendu eta egonaldi gastuak:** ekintza hauek zentro edo egoitzetxeetan egoteko GFAREN laguntza finantzarioa jasotzen duten adingabe, pertsona heldu, minusbaliatu eta gizarteratu gabeen kopurua areagotzeko bide ematen dute.

**40. Zentro eta egoitzetxeetan inbertsioak:** jarduera lerro honek gizarte zerbitzuak ematen dituzten zentro eta egoitzetxeetan hainbat obra egiteko bide ematen du.

## INTRODUCCIÓN

### ALCANCE DEL TRABAJO

Este informe sobre el Plan Extraordinario Gipuzkoa 2003 (en adelante, el Plan) se realiza conforme a la Ley 5/88 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri-Kontuen Euskal Epaitegia, y está incluido en el Programa Anual de Trabajo para abril 2001-marzo 2002, a petición de las Juntas Generales de Gipuzkoa.

El trabajo realizado ha consistido en un análisis de la planificación inicial y de la ejecución a fecha 30/09/01 de los diferentes proyectos del Plan, a partir de la información contable y de datos complementarios facilitados por los departamentos forales. Para estos últimos datos, las comprobaciones del Tribunal se han limitado a verificar que concuerdan con la información contable disponible.

En algunos casos, el Plan entronca con planes departamentales más detallados (Plan General y Territorial de Carreteras, Plan Foral de Lucha contra el Fraude, programa Bizitzen Lagundu de servicios sociales, etc.) que, más allá de los aspectos recogidos en el Plan Extraordinario Gipuzkoa 2003, no han sido objeto de esta fiscalización.

### DESCRIPCIÓN DEL PLAN

El Plan Extraordinario Gipuzkoa 2003 fue aprobado por las JJGG como documento integrado en el Presupuesto del Territorio Histórico para el año 2000, y establece un compromiso plurianual de actuaciones a realizar en el cuatrienio 2000-03 (excepto dos actuaciones que se extienden hasta 2004), por un importe total de 82.775 millones de ptas.

El origen del Plan se encuentra en la voluntad de las instituciones forales de dar un destino adecuado a los mayores recursos financieros de que esperan disponer, ligados al saneamiento de la deuda foral y a una coyuntura económica favorable, evitando su posible dispersión en un mero aumento del gasto corriente y en actuaciones ordinarias.

Así, el Plan define las actuaciones que son consideradas estratégicas para el Territorio Histórico de Gipuzkoa, agrupadas en torno a 3 ejes de actuación: la cohesión social, la modernización del Territorio Histórico, y la preservación del patrimonio cultural y del medio ambiente:

PLAN EXTRAORDINARIO GIPUZKOA 2003		Millones-ptas.			
Departamento	Actuación	Cohesión social	Modernización	Cultura y medio amb.	Total
Dip. General	Regeneración de Pasaialde.....	3.270	-	-	3.270
	Desarrollo de la soc. del conocimiento.....	-	3.150	-	3.150
	Desarrollo de la soc. de la información.....	-	45	-	45
Presidencia	Desarrollo de la soc. de la información.....	-	1.000	-	1.000
Econ. y Turismo	Nuevas líneas I+D.....	-	640	-	640
	Desarrollo de la soc. de la información.....	-	50	-	50
Tr. y Carreteras	Carreteras: Eibar - Vitoria y otras.....	-	54.730	-	54.730
	Transportes.....	-	75	-	75
Hac. y Finanzas	Lucha contra el fraude fiscal.....	1.347	-	-	1.347
OOHH y Urbanismo	Suelo industrial.....	-	2.460	-	2.460
	Plan contra la sequía.....	-	1.000	-	1.000
	Encauzamiento de ríos.....	-	400	-	400
Cultura, Eusk. J y D	Patrimonio cultural.....	-	-	1.255	1.255
Agricultura y MA	Mejoras forestales.....	-	-	800	800
Servicios Sociales	Ayudas asistenciales de mínimo social.....	955	-	-	955
	Mantenimiento de residencias y centros.....	6.785	-	-	6.785
	Inversiones en residencias y centros.....	4.813	-	-	4.813
<b>Total</b>		<b>17.170</b>	<b>63.550</b>	<b>2.055</b>	<b>82.775</b>

NOTA: Para un mayor detalle de los proyectos incluidos en el Plan, consultar el Cuadro 1 y el Anexo.

Destacamos los siguientes aspectos en relación con el cuadro anterior:

- Algunos proyectos refuerzan actividades presupuestarias habituales de la DFG en su importe y número de beneficiarios (ayudas asistenciales, mejoras forestales, etc.). Otros responden al compromiso de ejecución total o parcial de proyectos anteriores (desarrollo de Pasaialde, obras de carreteras, etc.). Otros, por último, se refieren a proyectos nuevos para el desarrollo de la sociedad de la información y del conocimiento, fomentando la utilización de las nuevas tecnologías.
- Las actuaciones son de carácter unidepartamental, excepto el Desarrollo de la Sociedad de la Información, que se presupuesta en tres departamentos forales.
